

IRAILAREN 16an HASIKO DA MADRILGO AUDIENTZIA NAZIONALEAN 47 EUSKAL HERRITARRON AURKAKO EPAIKETA: FISKALTZAK 600 URTETAKO ESPETXE ZIGORRAK ESKATU DITU GURE AURKA

- 11/13 sumarioko lagunen lehen balorazioa

Irailaren 16an hasi eta gutxienez hiru hilabetez luzatuko da sumario honetan gauden 47 pertsonen aurkako epaiketa. Bost eta sei urte artean igaro dira Guardia Zibilak atxilotu gintuenetik; gutako batzuk espetxeratuak izan ziren, eta guztiok auziperatuak. Geroztik baldintzapeko askatasunean aurkitzen gara Espainiako Entzutegi Nazionalean epaituak izateko zain.

- Urte hauetan guztietan presente izan dugu edozein unetan epaiketa baten aurrean aurkituko ginela, hamabostean behin joan gara epaitegietara sinatzera, eta espainiar estatutik ateratzeko debekua izan dugu. Egoera honek gure bizitzak baldintzatu ditu, gureak eta gure ingurune hurbilarenak, maite ditugun eta gaituzten horienak. Guk espetxearen mamua dugu parez pare. Gure hurbilekoek gure ausentziaren, sakabanaketaren eta finean maite duten pertsona bat preso izatearen mamua dute parez pare. Egoera gogorra da beraz, ez dugu ukatuko.

- Euskal preso politikoen eskubideen aldeko mobilizazioak antolatzea, presoen osasuna zaintzea, presoak epaitegietan defendatzea, bitartekari lanak egitea, presoen senideak izatea eta sakabanaketari aurre egiteko antolatzea. Hau izan da gure lana, eta hau da epaitzera doazena. - Kausa justu baten alde antolatu gara, elkartasuna antolatu dugu, giza eskubideak aldarrikatu ditugu, eta preso eta iheslariak herrian egon daitezen lan egin dugu. Gure printzipio etiko eta politikoei loturik aritu gara uneoro.

- Estatuaren estolderietan sorturiko auzibide hau astakeria juridiko eta soziala da. Gure lana erabat publikoa izan da, eta helburu argiak izan ditu: Euskal presoek eskubideak errespetatuak izatea, Euskal Herrian justiziazko bake egoera bat behingoz finkatzeko.

- Mundu osoan ematen ari den inboluzioa eta eskubideen urraketa itzela da, eta horren adibide argia da oraindik orain euskal presoek bizi duten egoera. Urrutira joan gabe Altsasuko gazteen kasuak eta Katalunian gertatzen ari denak erakusten digute erregresio eta jazarpen egoera honen norainokoa. –

Epaiketaren bezperetan gauden honetan, aurreratu nahi dugu ez garela geldirik egongo. Epaiketa honen bidegabekeria salatuko dugu, behar den lekuan eta behar den guztietan. Bide hau beste herritarrekin batera egin nahi dugu, herritarrak garelako egoera aldatu eta justiziarako bidea egiteko bermerik eraginkorra.

- Etorkizun berri batean sinesten dugu, justizian, inolako indarkeriarik gabe eta bakean bizi den Euskal Herri bat nahi dugu. Egia, enpatia eta zubigintzaren bidez, gure eskuak eta gogoak prest daude bide hori egiteko.